

# AITA VITORIA

*Gazteiz'en jaio zan XV garren gizaldiko azken aldian. Etxe oneko seme zan; eta Domingotarren konbentura sartu zan, amazortzi urtekoa zala.*

*Paris'en egin zituan bere ikasketak; Tomas eta Alberto Magno deunak egin ebezan ikastetxe bertan. Eta ango maixu biurtu zan, urrengo, arein antzera.*

*Españiara itzuli, ta Valladolid'en irakatsi eban, eta Salamanca'ko ikastetxe nagusian gero, azkeneko bere ogei urtetan.*

*Ez eban edozelan irabazi ango goi-maillako irakasletza. Munduko ikastetxe nagusia zan Salamanca'ko ikastetxea; eta bazter guztietako jakintsurik onenak aurkeztu ziran irakasletza ori lortuteko eratu zan leiaketara.*

*Illabete osoa irauñ eban leiaketak. Eta maixu arein saio luze ta sakonak entzun ondoren, aita Vitoria aukeratu eben, ao batez, bertoko ikasle ta irakasleak.*

## MAIXUA

*Eta ez ziran damutu.*

*Lengo esakera, idazkera ta irakaskeaa zarrak barriztau ebazan. «Klasikoen» mundu bereizia ezagunerazo eban. Pedro Lonbardo'ren liburuak kendu, ta Tomas deunarenak sartu ebazan. Iturrietara jotzen eban beti bere saioetan. Eta gizalegea be aztertu ta irakasten eban, jainkolegeagaz bat.*

*Buru zorrotz eta argiko gizona zan. Gai astun eta biurrienak be, argi, garbi ta gozo azaltzen ekiana. Izadiko mirari bereizi bat zan.*

*Maite eben ikasleak, itsuki maite be.*

*Aulki latz luzeetan ezarririk, agoa zabalik entzuten eutsoen; eta paper zabalak belauñ geñetan ipiñirik, arek esandakoak, itzez-itz, jasotzen eb ezen.*

*Ezueria edo gota geixo ori eukan, eta ezin zan, sarri, oiñen geñean ibilli, Or etorkozan, orduan, ikasleak, alkar leian ariñeketan, eta lepoan artuta ekarten eben eskolara.*

*«Izan lei, bai, jakintsu andiagorik, —esan oi eben aren ikasleak—, ez baiña maixu oberik».*

## «DE INDIS»

*Izen ori ezarri eutson maixuak Inditarrei buruz berak emon eban ikasgaiari.*

*Eskubide osoz eskuratu ebazala Ameriketako lurraldeak, esan oi eutsoen Karlos I erregeri aren gorte-egille koipeak. Ez eban alangorik uste maixuak, eta onelan ezereztan ebazan sasi jakintsu arein arrazoi nagusiak:*

*Areik: Gure erregea mundu osoko jabea da. Onek: Nork esan dau ori?*

*Areik: Mundu guztiko buru dan, Aita Santuak emon deutso. Onek: Guzurre da ori.*

*Areik: Españiarrak irabazi dabez. Onek: Ortaz, bardin etorri leikez eurak be, eta gureak artu.*

*Areik: Ez dabe gore federik artu gura. Onek: Fe-dea ezin lei indar eta gogorrean sartu.*

*Areik: Gure erregea onartu dabe. Onek: Bai..., Cortes eta Pizarro'ri esan...!*

*Areik: Jainkoak emon dautsoz, Israel'i Palestina lez. Onek: Nun agiri da ori?*

*Eta au gaiñeratu oi eban aita Vitoriak: Lurralde orreñ jaun da jabe ziran Inditarrek, Españiarrak aratu baiño len.*

## «DE JURE BELLI»

*Garrantzi aundikoa izan zan gerrateari buruz beste ikasgai au bere.*

*Borroka ta guda askotan sartuta egoan Karlos I; eta sarri askotan, sortu oi ziran arei buruzko arazoak; eta ez txikiak.*

*Ona emen, gai ori dala-ta, gore maixuak egiñiko galde-erantzunak:*

*Zillegi ete da iñoiz guda egitea? Nekez, baiña iñoz iñoz, bai.*

*Eta Laterriaren edo ta aren agintarien andi-naiez? Ezta bere.*

*Noz, beraz...? Iñor iñoz gure aurka, indarra lege, datorrenean.*

*Eta zelan jokatu, orduan, arerioen aurka? Neurritz, beti. Indarkeriz sortutako okerra azpiratzeko aiman, bakarrik.*

## AREN AINTZA

*Aita Vitoria'ren ikasgai eta argibide oneik ikusita, itaun au datorkigu, burura: eta nundik-nora eldu yakon geure maixuari legediari buruzko ganora ta zaletasuna?*

*Araban agintzen eban, Arriaga'ko Batzarraren ordezkari zan gure maixuaren aita, Pello. Eta onengandik artu bide eban, gura maixuak, antza, bere giza legerako zaletasun eta ganorea.*

*Dana dala, erri arteko lege jakintzaren sortzaille dogu gure aita Vitoria. Ori bera diño, a baiño gizaldi bat geroago jaio zan, eta gai orreik berak landu ebazan, Holanda'ko Hugo Grocio, lege-gizon ospetsuak.*

URKIOLA'k